



BAZKIDE GARRANTZITSUAK

Bazkide garrantzitsua enpresaren kontrola edo norabidea baldintzatzen duena da. Normalean partaidetza handiena duen akzionista nagusia da, baina fundatzaileak, zuzendaritza kontseiluko buruak eta inbertitzaile handiak ere sartzen dira talde horretan. Boterea dutenak, bai jabetzagarik bai erabakietan duen eraginagarik.

Bazkide garrantzitsuek gure enpresak arrakasta izango duela bermatzen dute.

Hau da, kontratu baten bidez, bazkide bakoitzak bere diruarekin, baliabide batekin, edo haiek daukaten ezagutza jakin batekin laguntzen diote enpresari. Enpresak trukean, etekinetan parte hartzeko eskubidea lortzen dute.

Aliantzak/lankidetzak: Honek bi enpresa edo erakundeen arteko elkarlanean datza, helburu komun bat lortzeko. Elkarrekin lan egiten dute, baliabideak, ideiak edo gaitasunak partekatuz eta ondoren emaitza hobeak lortzeko.

Lankidetzak ezinbestekoak dira enpresa bat sortzerakoan. Guk, bi lankidetzak nagusi ditugu, zahar egoitza eta udaletxea. Hauek hainbat gauzetan lagunduko digute. Udalak, parte hartzaileak bilatzen lagunduko digu, proiektua herritarren artean zabalduz. Gainera, hitzaldiak eta aurkezpenak antolatuko ditugu elkarlanean. Bestetik, zahar egoitza, honek, bazkideak lortzen lagunduko digu. Agian, hainbat bezero bakardadea pairatzen dutelako daude zaharretxean, hauek, osasun arazoengatik zahar etxea behar dutenei lekua kentzen die, hortaz bakardadea sufritzen duten pertsonak gure komunitatera etorriko dira, zahar etxean behar dutenei lekua utziz. Hortaz gain, komunitatea sortua dugunean, ekintzak egin ditzazkegu haiekin.

Hornitzaileak: Eraikuntza, egokitzapenak eta jasangarritasun teknologikoak eskaintzen dituzte, adibidez, eguzki-plakak eta energia aurrezteko sistemak. Eguzki-plakak SotySolar enpresarekin instalatuko dira. Urteko kostua 4.633€ da, eta hileko kuota 39,19€koa izango da. Zenbateko hori gure komunitatean bizi diren bezeroek ordaintzen duten diruarekin estaliko da. Horri esker, komunitatea segurua, iraunkorra eta eroso bihurtzen da. Gainera, kostuak murrizten dira eta bizilagunek bizitza partekatua eta kalitatezkoa izaten dute.

Bazkide garrantzitsuak: Gure enpresan bazkide garrantzitsuak funtsezkoak dira proiektuaren egonkortasunerako eta garapenerako. Gaur egun, maileguak eta kapitala ematen dituzten bazkideak ditugu, eta horri esker enpresaren eguneroko jarduera mantendu, egindako inbertsioei aurre egin eta hazkundearekin jarraitu dezakegu. Haien babes ekonomikoari esker,



enpresak sendotasunez funtzionatzen du eta epe ertain eta luzerako helburuak garatzen jarrai dezake.

Lankidetzaren estrategikoa: Gure enpresa udaletxearekin eta zahar egoitzarekin lan egiten du. Udaletxeak laguntza ematen digu proiektuak izaera soziala duelako; horrela, prestigio instituzionala irabazten dute eta guk haien babesari jasotzen dugu.

Zahar egoitzaren kasuan, bertan bizi diren eta bere kabuz molda daitezkeen pertsona batzuk gure komunitatera etorriko dira bizitzera. Horrela, guk bezero gehiago izango ditugu eta egoitzak leku gehiago izango du. Gainera, egoitzako adinekoek gure komunitatean egiten diren jardueretan parte hartu ahal izango dute.